

Elikadura-ohiturak aldatzea beharrezkoa da Parisko Akordioaren helburuak lortzeko

Erregai fosilen CO₂-igorpenak bat-batean eta guztiz etengo balira ere, ezingo litzateke lortu Parisko Akordioan ezarritako 1,5 °C edo 2 °C-ko helburua. Egungo elikadura-sistema globalaren joerak ezinezkoa egingo luke. Ondorio horretara iritsi dira Oxfordeko Unibertsitateko (Erresuma Batua) eta Minnesotako Unibertsitateko (AEB) ikertzaileak.

Tenperatura globala industriaurrekoa baino 1,5 °C gorago bakarrik mantentzeak elikadura-sisteman aldaketa handiak eta azkarrak egitea eskatuko luke, horrek sortzen baitu munduko berotegi-efektuko gasen igorpenaren % 30. Guztira, 16 mila milioi tona CO₂ baliokide igortzen dira urtero, *Science* aldizkariaren arabera.

Orain arte, industrian, garraioan eta elektrizitatearen ekoizpenean jarri da arreta, baina ez zaie kasu gehiegi egin elikadura-sistemak sortzen zituen igorpenei, ustez saihetsezinak zirelakoan gizadia elikatzeke. Ikertzaileek faltsutzat jo dute ikuspegi hori, eta hiru neurri proposatu dituzte: dieta aldatzea, nekazaritzaren eraginkortasuna handitzea eta elikagaiak alferrik ez galtzea. Hala eginez gero, karbonotan neutroa edo baita negatiboa den elikadura-sistema globala lor daitekeela adierazi dute. ●



ARG.: Pixabay.

Material magnetiko topologiko berriak aurkitzeko metodoa

Kimika kuantiko topologikoan egin den urrats garrantzitsu baten berri eman du *Nature* aldizkariak. [Material magnetiko topologiko berriak aurkitzeko metodo bat diseinatu dute](#), eta, dagoeneko, 100 isolatzaile eta erdieroale magnetiko topologiko berri baino gehiago aurkitu dituzte.



Maia Garcia Vergniory DIPCKo Ikerbasque ikertzaileak eta Luis Elcoro EHUko irakasleak egin dute lana, Max Planck, CNRS, MIT eta beste ikerketa-zentro batzuetako ikertzaileekin batera. ARG.: EHU.

Duela gutxi, taula periodiko "topologiko" baten bidez sailkatu ziren elementuak. Horri esker, milaka material topologiko ez-magnetiko identifikatu ziren; konposatu magnetikoak, ordea, ezin ziren sailkatu metodo topologiko automatizatuak aplikatuz. Besteak beste, haien simetria konplexuengatik eta iman kuantikoak simulatu eta neurtzeak dakartzan zailtasun teoriko eta esperimentalengatik. Ondorioz, material topologiko magnetikoak aurreikusuteko lana askoz ere zailagoa da. Orain, lortu dute halako materialak aurkitzeko metodoa garatzea.

Aurretik, 2017an, material ez-magnetikoen ezaguri topologikoak beren ezaugarri kimikoekin lotzea baimendu zuen ikuspegi berritzaile bat garatu zuten (kimika kuantiko topologikoaren teoria). Horri esker lortu dute orain material topologiko ez-magnetikoen bilaketa automatizatzea. ●